

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Onestea “Amurrioko hornikuntza-sareak berritzeko proiektuaren” eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, eta okupazioaren aurreko aktak egiteko zitazioa ematea eraginpeko ondasun eta eskubideen titularrei. Espedientea: 201805S124

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2018ko urtarrilaren 31ko bilkuran, jarraian jasotako xedapenak biltzen dituen erabakia onetsi zuen:

“LEHENENGOA. – “Amurrioko hornikuntza-sareak berritzeko proiektuaren” eraginpeko ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrendaren jendaurreko izapidean aurkeztutako alegazioei erantzutea.

BIGARRENA. – Proiektu horren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea, erabaki honen I. eranskinean jasotakoa, eta horiek okupatzeko eta eskuratzeko beharra aitortzea, desjabetzeko, aldi baterako okupatzeko edota zortasunak ezartzeko, aldatzeko edo baliogabetzeko.

HIRUGARRENA. – Eranskineko zerrendan zehaztutako ondasun eta eskubideak okupatzeko premia aitortzea. Premia hori dela eta, desjabetze-espedientea presako prozedura bidez izapidetu behar da, nahitaezko desjabetzeari buruzko legearen 52. artikuluan ezartzen den moduan.

LAUGARRENA. – Gehienez 12.630,21 euroko gastua baimentzea Amurrioko aurrekontuko eraginpeko ondasun eta eskubideen balio justua ordaintzeko (161.627 aurrekontu-partida – Etxeetan edateko ura hornitzeko zerbitzuaren funtzionamendu operatiboari lotutako proiektu konplexuetan eginiko inbertsioak). -

BOSGARRENA. – Alkatetzari ahalmena ematea proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalerak handitzeko eta/edo aldatzeko.

SEIGARRENA. – Erantsitako zerrendan agertzen diren titularrei deialdia egitea Amurrioko udaletxera bertara daitezen bertan adierazitako egun eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailuari dagokion zenbatekoa eskaini ondoren.

Kontzeptu horiei dagokien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, behin betiko balio justuaren kargura, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzu: eskubidearen egiaztagiria (eskritura), nortasun-agiri nazionala eta botere nahikoa, baldin eta egintza horretara legeko ordezkariak bertaraten badira.

Eskainitako zenbatekoa jaso nahi ez baduzu edo modu frogagarrian egiaztatu ezin baduzu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zure nortasuna, zenbateko hori Amurrioko Udaleko Diruzaintzaren Gordailu Kutxan jasoko da, nahitaezko desjabetzeari buruzko legearen erregelamenduaren 58.1 artikuluari jarraikiz.

ZAZPIGARRENA. – Okupazioaren aurreko aktak egiteko zitazioaren berri ematea interesdunei, zedula bidez, eta honako hauetan argitaratzea: BOEn, ALHAOn, probintziako bi egunkaritan eta Amurrioko udaletxeko ediktu-taulan. Gutxienez zortzi egun lehenago argitaratu beharko da.

ZORTZIGARRENA. – Erabaki honen berri ematea interesdunei, jakin dezaten eta dagozkion ondoreak izan ditzan. Jakinarazi beharko zaie, halaber, egintza honek amaiera ematen diola administrazio-bideari eta honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dutela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien

Salan. Horretarako bi hilabeteko epea izango dute, argitalpenaren edo, hala badagokio, jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasita.

Dena den, egokitze jotzen bada, aldez aurretik aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da egintza eman duen organo beraren aurrean. Errekurtso hori hilabeteko epean aurkeztu beharko da, aurkaratu nahi den argitalpenaren edo, hala badagokio, jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasita. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri berraztertze-errekurtsoa berariaz ebatzi edo ustez gaitzesten den arte (urriaren 1eko 39/2015 Legearen –Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena– 123. eta 124. artikulak):

Amurrión, 2019ko otsailaren 6an

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA

LERANSKINA. AMURRIOKO HORNIKUNTZA-SAREAK BERRITZEKO PROIEKTUAREN ERAGINDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEN BEHIN BETIKO ZERRENDA.															EGUNA	ORDUA
JABEA	TITULAR	FINKAREN ZK. N° FINCA	KATASTROKO DATUAK		UDALA	APROBETAMENDUA	BIEN AFECTADO	ERAGINDAKO AZALERA			DIA	HORA				
			POLIGONO	PARCELA				BIEN AFECTADO	DEFINITIVA	SUPERFICIE AFECTADA M2			SERVIDUMBRE			
ADMINISTRADOR DE INFRAESTRUCTURAS FERROVIARIAS (ADIF)		1	13	26	AMURRIO	BASOBERA BAKARRA		1	248	74	01/03/2019	12:00				
IBARROLA PERPINA, ALBERTO		2	13	23	AMURRIO	A=OTALUR BAKARRA		1	144	50	01/03/2019	8:30				
COLEGIO SAGRADA FAMILIA		3	13	22	AMURRIO	C=LEHOREKO LABORANTZA LAUGARRENA D=TANTADI BAKARRA	C=40 D=40	C=43 D=45			01/03/2019	12:30				
OSORIO GALLARDO, FRINE BERENICE VARONA APARICIO, INIGO		4	13	24	AMURRIO	LEHOREKO LABORANTZA LAUGARRENA		0	55	24	01/03/2019	9:00				
ADMINISTRADOR DE INFRAESTRUCTURAS FERROVIARIAS (ADIF)		5	13	25	AMURRIO	LEHOREKO LABORANTZA LAUGARRENA		0	206	68	01/03/2019	12:15				
DIPUTACION FORAL ALAVA		6	13	30	AMURRIO	LEHOREKO LABORANTZA LAUGARRENA		0	40	12	01/03/2019	11:45				
MOLINUEVO ISASI, HNOS. (J. MANUEL, M. ROSARIO, M. JESUS)		7	14	306	AMURRIO	TANTADI BAKARRA		1	46	21	01/03/2019	9:30				
OSORIO GALLARDO, FRINE BERENICE VARONA APARICIO, INIGO		8	14	371	AMURRIO	ELKOR		2	222	88	01/03/2019	9:15				
GOKOMENDI S.A. (61%) IBARROLA PERPINA, ALBERTO (39%)		9	15	51	AMURRIO	LURSAIL ORUBE		3	586	466	01/03/2019	8:45				
OCHOA BERGANZA, HNOS. (JOSE, FERNANDO, JESUS)		10	15	50	AMURRIO	A= LURSAIL, ORUBE		0	A= 174	A= 56	01/03/2019	9:45				
GOMEZ MAZA, J. LUIS		11	15	63	AMURRIO	A= LURSAIL, ORUBE B= BELARDI HIRUGARRENA		0	A= 152 B= 117	A= 52 B= 28	01/03/2019	10:00				
ISASI GALDOS, ANTONIA (86,66%) BALZA MARTINEZ, JESUS M. (33,33 %)		12	15	200	AMURRIO	ELKOR		2	1151 (Lursailaren 1/300000)	504 (Lursailaren 1/300000)	01/03/2019	10:15				
AYUNTAMIENTO DE AMURRIO		13	15	56	AMURRIO	LURSAIL, ORUBE		2	1074	339	01/03/2019	-----				
M. DOLORES LAFRIMAGA APARICIO		14	17	265	AMURRIO	LARRE BAKARRA		1	736	296	01/03/2019	10:30				
ZIGOR EGUA SUANCES / FRANCISCO EGUA ALDAMA		15	17	267	AMURRIO	LEHOREKO LABORANTZA LAUGARRENA		0	297	98	01/03/2019	10:45				

LERANSKINA. AMURRIO HORNIKUNTZA-SAREAK BERRITZEKO PROIEKTUAREN ERAGINDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEN BEHIN BETIKO ZERRENDA.														
JABEA	TITULAR	FINAKAREN ZK.	KATASTROKO DATUAK		UDALA	APROBETAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA			EGUNA	ORDUA		
			POLIGONOA	LURZAILA				BETIKO DEFINITIVA	BETIKO TEMPORAL	ZORTASUNA				
													DATOS CATASTRALES	
POLIGONO	PARCELA													
Mª ANGELES ARBERAS FURUNDARENA Mª TERESA ARBERAS FURUNDARENA		16	12	368	AMURRIO	B= OTALUR BAKARRA C= LEHORREKO LABORANTZA LAUGARRENA	B= 0 C= 0	B= 31 C= 17	B= 13 C= 1	01/03/2019	11:00			
Mª OLGA CARRO GOMEZ ISMAEL CARRO GOMEZ		17	12	369	AMURRIO	A= BASOBERA BAKARRA B= LEHORREKO LABORANTZA LAUGARRENA	A= 0 B= 0	A= 557 B= 372	A= 269 B= 52	01/03/2019	11:15			
DIPUTACION FORAL DE ALAVA		18	12	79	AMURRIO	B= BASOBERA BAKARRA	B= 0	B= 499	B= 161	01/03/2019	11:30			
AYUNTAMIENTO DE AMURRIO		19	12	80	AMURRIO	A= BASOBERA BAKARRA B= IKASTETXE	A= 1 B= 2	A= 263 B= 1836	A= 115 B= 557	01/03/2019				